

NEVADAS. 31 DE ENERO.

El día 28 de enero empieza a afectarnos la penetración de una masa de aire ártico marítima, caracterizada por temperaturas muy bajas y una inestabilidad potencial muy alta, que culmina el día 31, día en que se producen importantes nevadas en todo el territorio por encima de 100 metros de altitud.

Durante todo este episodio se produjeron, además de nevadas importantes, rachas huracanadas de viento y fuertes granizadas en Bizkaia y Gipuzkoa.

Los espesores de nieve en muchos puntos de la llanada Alavesa superaron los 25 cm y se alcanzó el metro en zonas montañosas próximas.

El episodio de nieve finaliza el día 1 de febrero, cuando un frente cálido procedente del Atlántico cruza el territorio, elevando la cota de nieve. En los días posteriores, el progresivo aumento de las temperaturas y nuevas lluvias produjeron el deshielo de gran parte de la nieve caída, que junto con otros factores provocó el desbordamiento de algunos ríos.

Como se puede observar en los mapas de superficie y de altura la situación es claramente del norte (ver figuras 3.1 a 3.3). El día 30 por la tarde una depresión se sitúa en Francia y un frente frío que procede del norte alcanza el País Vasco impulsado por vientos del norte muy fuertes, con rachas huracanadas (superiores a 120 km/h) en muchos lugares de montaña y del litoral. Detrás de este frente frío penetra una masa de aire ártica con una temperatura de $-8\text{ }^{\circ}\text{C}$ a 850 hPa y $-35\text{ }^{\circ}\text{C}$ a 500 hPa. La cota de nieve descendió progresivamente a lo largo de la noche, hasta situarse a 100 metros de altitud durante la mañana del día 31.

ELURTEA. URTARRILAREN 31N.

Urtarrilaren 28an aire-masa itsastar artiko bat penintsulan sartzen hasi zen. Oso tenperatura hotza zekarren eta ezegonkortasun potentzial handia ere bai. Egoera horrek 31 arte iraun zuen, orduan, 100 m-tik gora, elur ugari bota zuen.

Aldi horretan, elurra ez ezik haize-bolada bortitzak izan ziren eta txingor-zaparrada gogorrak ere Bizkaian eta Gipuzkoan.

Elur-geruzak 25 cm-ak gainditu zituen Arabako Lautadako zenbait tokitan, inguruko mendialdean metro batetara ere helduz.

Atlantikotik zetorren fronte bero bat otsailaren 1ean heldu zen gure lurraldera eta elurrak atzeraka egin zuen. Ondorengo egunetan, tenperaturaren igoeraren eta prezipitazio berrien eraginez, elurra urtu eta ibai batzuek gainezka egin zuten.

Azaleko eta altuerako mapetan ikus daitekeenez (ikus 3.1, 3.2 eta 3.3 irudiak), iparraldeko egoera garbia da. 30a arratsaldean depresio bat Frantzia kokatu eta iparretik zetorren fronte hotz bat Euskal Herrira heldu zen ipar-haize oso gogorrak bultzatuta. Mendialdean eta kostaldean bolada bortitzak (120 km/h baino abiadura handiagokoak) neurtu ziren. Fronte hotz honen atzetik, aire polarrez osatutako aire-masa bat sartu zen, -8 °C-rekin 850 hPa-era eta -35 °C-rekin 500 hPa-era. Elur-kotak behera egin zuen gauean zehar, 31an 100 metrora kokatu arte.




Figura 3.1. Presión a nivel de mar y frentes el 31/01/2003 a las 12 UTC.
3.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak 2003/01/31 UTC 12etan.




Figura 3.2. Geopotencial e isotermas a 850 hPa el 31/01/2003 a las 12 UTC.
3.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-era, 2003/01/31 UTC 12etan.




Figura 3.3. Geopotencial e isotermas a 500 hPa el 31/01/2003 a las 12 UTC.
3.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-era, 2003/01/31 UTC 12etan.